

# Bizirautea ala osasuna?



MAITE FERNÁNDEZ LANDALUCE  
FILOSOFIA IRAKASLEA

Zenbat denbora irauten du larrialdi-egoera batek? Larrialdi-egoera bat denboran asko luzatzen bada... larrialdi-egoera izaten jarraitzen du?

Zenbat denboran da zentzuzkoa biziraupena beste guztiaren aurretik jartzea, baita osasunaren aurretik ere?

Zer da osasuna? Zer da bizitza osasuntsua?

Zaila dirudi benetan osasuntsu egotea sozializatu gabe, ezta? Zaila ere benetan osasuntsu egotea lasaitasunik gabe, beldurrarekin eta mehatxupearan bizi denean... eta duintasunik gabe? Posible al da osasuntsu egotea, duintasunik gabe? Osasuna egon daiteke aukeratzeko gaitasunik ez baldin badago?

Badirudi horiek guztiak atzeratzen ari garela –sozializazioa, lasaitasuna, erabakitze gaitasuna...– biziraupenaren mesedetan.

“Bueno, baina honakoa larrialdi egoera da!” Diote. Baina noiz arte dauka zentzua horrelako erabaki bat luzatzeak, premiazkoa dena beste guztiaren aurretik jartzeak, baita osasungarria denaren aurretik ere? Noiz arte?

Eta osasun kolektiboari dagokionez... zertan datza gizartearen osasuna? Zer da gizarte osasuntsua?

Esango nuke gizarte osasuntsu batek bere gazteak zaindu behar dituela, zaharrek zaintzen dituen adina behintzat.

Ba ez gara horretan ari.

Esango nuke gizarte osasuntsu batek asko zaindu behar dituela hezkuntza eta kultura.

Horretan ere ez gara ari.

“Larrialdi egoera da”, diote. “Beharrezkoa da lehenestea”, diote. Zenbat denboran? la urtebete daramagu horrela. Eta uste dut gehienok jakin badakigula hau ez dela amaituko behin txertoa jarrita

Gizarte osasungarri batek sozializazio-esparruak bermatu eta zaindu behar ditu.

Ez gara ari.

Gizarte osasungarri batek lanari bezainbesteko garrantzia –edo handiagoa akaso– eman behar dio kulturari, prestakuntzari eta aisiari.

Ez gara ari.

Gizarte osasuntsu batek bere inguru-nera naturala zaindu behar du.

Ez gara ari.

... are gehiago esango nuke... adinekoak zaintzea senideen bitartekatuak dela uste duen gizarte bat; adinekoak babestea bakardadean hiltzen, musurik eman gabe, eskua hartu gabe uztea dela

uste duen gizarte... horrelako gizarte bat ez al da jada gizarte gaixo bat izango?

“Larrialdi egoera da”, diote. “Beharrezkoa da lehenestea”, diote. Zenbat denboran?

Ia urtebete daramagu horrela. Eta uste dut gehienok jakin badakigula hau ez dela amaituko behin txertoa jarrita.

Biziraupenetik haratago, bizitzara itzultzen noiz utziko diguten zain gaude. Larrialdi-egoera utzi eta bizitza –bizitza osasuntsua– berriro erdigunean jartzea erabakitzen duten arte itxaroten ari gara. Baina uste dut jakin badakigula ez dutela horrelakorik erabakiko, epe motzean behintzat. Ez eremu horira jaitsita ere, ez maskara jantzita ere, ez etxeratzeko-agindua errespetatuta ere, ezta txertoak jarrita ere... orduan, zenbat denbora gehiago itxarongo dugu?

Parentesian gelditu diren bizitza horiek geure bizitzak baitira, danonak. Bizitza –osasungarria edo ez– gutako bakoitzarena da. Eta, gizarte hori –osasungarria izan ala ez– guztiok osatzen dugu.

Zenbat denboraz geldiarazi daiteke bizitza bizirautearen mesedetan?

Ulertzen dut bizitza osasungarri baten aspektuak denbora luzez alde batera uzteak ezinbestean bizitza gaixora eramaten duela. Inolako zentzurik ba al dauka orduan, bizitza osasuntsua luza-roan uzteak, bizirauteko?

Itxaroten jarrai dezakegu, edo, agian, garaia da honezkero uler dezagun erabaki horrek batez ere geurea izan behar duela. Ezinbestean. ●